



UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2019/09/03) Hurrengo saioa: (2019/09/17)	Diru-laguntzak: Ondare naturala	Diru-laguntza honen proiektua zehazten hasi aurretik, lehenik, Itsasondon egindako ibilbidea ezagutu dugu Mikel Etxeberria biologoaren eskutik. Ondoren, habitat naturala berreskuratzea oinarri hartuta, proiektu integral bat aurkeztearen aldeko jarrera azaldu dugu: landaretzan (hariztiak, pagadiak eta haltzadiak), faunan (okil beltza, karramarroa, saguzarra,...), lur-zoruan (lur-sailak erosi) eta ibar basoetan eraginez. Horretarako 2015eko HAPO-aren (hiria antolatzeko plan orokorra) abantzean jasotzen dena ere aztertuko da.	Irailaren 14rako proiektua osatu eta aurkeztu
	Kirol-jarduerak, formazio saioak eta ikastaroak	Udaletik bidali zen kirol-jardueren eskaintzen emaitzak eta formazio eta ikastaroen eskaintzen emaitzak aztertu ditugu eta eskaeren arabera zerrendatu ditugu. Osatu diren taldeetako kideei adieraziko zaie eta Zerki eta Lahar enpresakoei gure beharren berri emango zaie. Euskara klaseei dagokienez, bilera bat egitea proposatzen da, asteko egunak eta ordutegia finkatu ahal izateko. Ondoren, AEK-koekin hitz egingo da	Zerki, Lahar eta AEK-koekin hitz egin eta datak adostu



LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2019/09/10) Hurrengo saioa: 2019/09/24	Itsaso 2030	<p>Siadecotik Juanjo Allur, Itsaso Osa eta Lide Rekondo bertaratu dira. Bildu diren inkestak aztertuz ondorengo gaiei buruzko grafiko estadistikoak aurkeztu dituzte.</p> <ul style="list-style-type: none">- Inkestatuen ezaugarriak- Bizi baldintza eta egoera pertsonalarekiko asebetetze-maila- Itsaso udalerriarekiko asebetetze-maila- Udalerriarekiko lehentasunak- Hirigintza, azpiegiturak eta etxebizitza politika- Enplegua eta tokiko ekonomia- Herri bizitza, herritarrentzako zerbitzuak eta zerbitzu sozio-komunitarioak- Itsaso2030 proiektuko lantaldeetan parte hartzeko interesa <p>Herritarrek gai bakoitzari buruz egindako ideia eta ekarpen emaitzen zerrendak aurrerago aurkeztuko dituzte.</p> <p>Lantaldeen lehenengo bilera egunak finkatu dira arratsaldeko 19:00etan</p> <ul style="list-style-type: none">- Hirigintza eta etxebizitza: irailak 18- Herri bizitza: irailak 18- Enplegua eta tokiko ekonomia: irailak 19	Lantaldeetan lan egiteko izena eman dutenei deialdia bidali.

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena Hurrengo saioa: 2019/09/25)	Ur Kontsorzioaren lanak	Aurreikusi bezala dagoeneko ari dira Itsasoko 7 gunetan hobekuntza lanak egiten. Guztira 60.000 eurotako inbertsioa. <i>Egurki</i> enpresa ari da lan hauek egiten.	
	Txakurrak lotuta eramateko kartelen eskaera	GR34-an batez ere, baina baita beste bide batzuetan ere, hainbatek txakurrak solte eramaten dituztenez, etxe inguruetara eta belardietara igaroz eta kalteak sorraraziz, Udalarri kartelak diseinatu eta bideetan jartzeko eskaera egin zaio. Bide batez, ganadua errespetatzeko kartela ere prestatu da.	Euskorot-en rotulazioa eskatu A3 tamainan material metalikoan eta kokatu
	Udaletxeko obra	Ganbarara irisgarritasuna bermatzeko alternatibak aztertzen ari da arkitektoa. Aukera bat da plataforma "salvaescaleras" kokatzea eta urriaren 2a baino lehen diru-laguntza eskatuko da Irisgarritasuna bermatzeko 2019 deialdiaren bidez.	Aurrekontua jakin eta proiektua aurkeztu



ITSASOKO

UDALA

(GIPUZKOA)

	Informazio panelak	Mandubikoari kristala hautsi zitzaioala aprobetxatuz, guztiei aldatuko zaie, izan ere, gardentasuna galdu dute. Polikarbonatozkoak jarriko dira material hobea baita.	Sarrailak ere bateratu
	Alegiako bide berdea asfaltatzea	<i>Orsa</i> enpresaren aurrekontua jada eskuartean dugunez, <i>Asfaltos Urretxuri</i> eskatu zaio bigarrena.	Esleipena bideratu
	Kizkitzako barandilla berriak	Kizkitzako plazatik oholtzara igotzeko eskaileretan barandak jarri dira bi alboetan, iaz jaso zen eskaerari erantzunez	
	Oria kaleko harlosak	Erori direnaz gain erortzeko arriskuan direnak askatuko dira eta ondo ezarriko dira, dilatatzeko tartea utziz, berriz eror ez daitezten. .	Udal langileak burutuko du lana